

BERBIZI



Irene Etxebarria, Udane Zenitagoia,
Garazi Agirresarobe eta Raymond Senghor



*"Aurrezte da jakintsuena, ez utzi
bazterrean,
kontsumoa jaitsi eta zaintzen ikasi behar da."*

Kaixo! Durangoko Fray Juan de Zumarraga ikastetxeko ikasle talde bat gara, eta gure helburua **kutsaduraren aurka** borrokatzea da. Horretarako, online truke-denda bat sortzea pentsatu dugu, jendeak erabiltzen dituen arropak partekatu eta berrerabili ahal izan ditzan. Baita ere, herriko denden produktuak sustatu nahi ditugu, tokiko ekonomia indartuz eta **kontsumo arduratsua** bultzatuz.

Hau da, **Berbizi** arropa berrerabiliz eta berrituz kontsumo arduratsua sustatzeko xedearekin sortu dugu, ingurumena zaintzen lagunduz eta pertsonen arteko lankidetza eta hurbiltasuna indartuz. Bere helburua eredu inklusibo eta jasangarri bat bultzatzea da, hondakinak murriztuz, jantziak berrerabiliz eta gizartean ingurumen-**kontzientzia** sustatuz.